

CEOE ENPRESARIEN ELKARTEAK GOGOR KRITIKATU DU ESPAINIAKO GOBERNUAREN ERABAKIA

# Madrilek %0,5-%1,5 igoko ditu aldi baterako kontratuen kotizazioak

■ Aldi baterako kontratuei dagozkien langabeziarako kotizazioak igo egingo ditu Madrilek: %0,5 ohiko kontratuetan eta %1,5 lanaldi laburreko kontratuetan nahiz aldi baterako lan enpresek (ABLE) egindakoetan.

Agentziak / Madril

KOTIZAZIOEN igoera sindikatuei eta CEOE enpresarien elkarteari jakinarazi zien atzo Madrilgo Lan Ministerioak. Neurri horren helburua enplegu egonkorra sustatzea da, behin-behinekoa zigortuz, eta PP alderdiak Senatuan aurkeztutako zuzenketa baten bidez bultzatuko du.

Aurrekontu Legean ezarritako zuzenketa horrek bestelako neurriak jasotzen ditu enplegu egonkorra saritzeko, hala nola lanaldi osoko kontratu finkoengatik enpresei eskaintzen zaizkien diru eragingarri eustea, baita lanaldi laburreko kontratu egonkorak sustatzeko eragingarri berriak ere.

Neurri horiek Madrilgo Gobernuak eta CCOO sindikatuak iragan astean egindako azken negoziazio bileraren ondorioak dira. UGT sindikatuak ez zen izan bileran, bai, ordea, CEOE enpresarien elkarteko ordezkariak.

Espainiako patronalaren elkarte horrek gogor kritikatu du Lan Ministerioaren erabakia. CEOE idazki baten bidez gaitzetsi egin ditu Madrilek erabakitako neurriak, «Gizarte Segurantzak kuoten bidez bildutako diru kopurua bilioi bat pezetatik gorako superabita daukalako, horietatik 400.000 milioi langabeziarako kotizazioari dagozkiola».

Antonio Gutierrez CCOOko idazkariak, berriz, garrantzi handikotzat jo du Gobernuarekin lortutako hitzarmena, enpleguaren egonkortasuna handitzeko aurrerapauso handia ekarriko duelakoan baitago. UGTk eta CEOEk hitzarmen bat egitea espero du Gutierrezek.

**Lan kostuak eta enplegua** • Hala ere, lanaldi laburreko kontratu berriarekin gertatu zen bezala, ez dirudi CEOEk hitzarmen hori onartuko duenik. Enpresari espainiarren elkarreko gogoratu duenez, «nazioarteko nahiz hemengo erakunde guztiak bat etorri dira enplegua sortzeko lan kostuak gutxitu beharra dagoela esatean». Horixe eskatu omen zion CEOEk Madrilgo azken bileran, baina, antza denez, Gobernuak ez dio jaramonik egin.

Patronalaren iritziz, azken urtean milioi bat lanpostu baino gehiago sortu izanak arrazoia ematen dio irizpide horretan. Enpresarien helburua, kotizazioak jaisteaz gainera, Gizarte Segurantzaren finantzabideak bereiztea da.

Irizpide hori arrazoitzeke, CEOEk adierazi du Espainiako enpresariak ordaintzen dituzten kotizazioen balioa Europako



Aldi Baterako Lan Enpresen (ABLE) bitartez egindako kontratuek zuzenean egindakoek baino kotizazio handiagoak izango dituzte.

XOUSE SIMAL

lurredeetako enpresek batez beste ordaintzen dutena baino %11 gehiago dela.

Horri erantzuteko, Gobernuak ordezkariak argitu nahi izan dute kotizazioen puntu erdiko igoerak gehienez 28.000 milioi pezetako kostua ekarriko diela enpresari, enplegu egonkorreko eragingarrien balioa 300.000 milioi pezetatik gorakoa den bitartean.

Neurri horren helburua  
enplegu egonkorra  
sustatzea da,  
behin-behinekoa zigortuz,  
eta PP alderdiak Senatuan  
aurkeztutako zuzenketa  
baten bidez bultzatuko du.

Bestalde, Espainiako sindikatuek ez dute abenduaren 3ko mobilizazioak bertan behera uzteko asmorik, Antonio Gutierrez CCOOko idazkariaren hitzetan, «zeren eta Gobernuak uko egin dio langabeentzako dirulaguntzak gehitzea negoziatzeari, eta, horren ordez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren erreforma onartzen tematu da».

## Aznar eta Blair lan eta kapital merkatuen erreformaren alde

ESPAINIAKO eta Erresuma Batuko presidentek, Jose Maria Aznar eta Tony Blair, Europako lan merkatuaren «etengabeko» erreforma proposatu diete Europako Batasuneko gaitzetsitako presidenteei. Izan ere, abenduaren 11 eta 12an Vianan goi bilera egingo dute estatuburuek, eta orduan enpleguaren gaia mahai gainean jartzea nahi dute Espainiako eta Erresuma Batuko gobernuburuek.

Pobrezia eta bazterketa soziala konpontzeko «oinarri bakarra» lan araudiaren etengabeko

moldaketa dela uste dute Aznarrek eta Blairrek. Bazterketa eta pobrezia konpontzeko, enpleguak gora egin behar du, eta horretarako agintariak egonkortasun makroekonomikoa bultzatu behar dutela uste dute Espainiako eta Erresuma Batuko presidentek. Lan merkatua ez ezik, kapital merkatua ere moldatu egin behar dela uste dute agintari horiek.

Erreformen helburua aukera berdintasuna bultzatzea litzateke, eta erreformen oinarria hezkuntza sistema da.

Horrezaz gainera, beharrezkoa da babes soziala lantzea, betiere malgutasuna eta segurtasuna uztartuz. Horiak dira, besteak beste, Aznarrek eta Blairrek enpleguari buruz Europako Batasuneko gainontzeko agintariei igorri dieten gutunean bildu dituzten iritzia.

Oro har, gobernuak eta Europako Batasuneko ordezkariak trabak jarri ordez kendu egin behar dituztela uste dute Aznarrek eta Blairrek, batik bat enpresa txiki eta tartekoaren iraupena bermatzeko. Hori guztia egiteko,

giro ekonomiko egokia sortzea garrantzitsua da, betiere Espainiako eta Erresuma Batuko gobernuburuen ustez.

Espainiako sindikatuek ez dute begi onez ikusi Aznarren eta Blairren ekimena. UGT eta CCOOren ustez, oso eskaera orokorrak dira agintariak bildu dituztenak, eta hutsune handiak daude, ez dutelako zerga eta aurrekontuen gainean ezertxo ere proposatzen. «Asmo adiezpenak baino ez dira. Ez dute inolako edukirik», ohartarazi dute UGT eta CCOOko ordezkariak. X

**CAFeko langileek azpikontratazioari egotzi diote langile baten heriotza**

■ Enpresa jokabide horrek lan istripuekin zerikusi zuzena duela diote

J.A. / Bilbo

CAF enpresan lanean ari zen langile bat, Santiago Enjami Vega izenekoa, hil zen iragarri igandean, larunbatean izan dako lan istripu baten ondorioz. Langilea CAFek kontratatutako Miresman enpresakoa zen, eta istripua Beasaingo tren enpresako altzairutegiko labean gertatu zen.

CAFeko langileek atzo egin dako biltzarrean enpresaren azpikontratazio politika salatu dute publikoki. Haien ustez, politika horrek «zerikusi zuzena» dauka lanean gertatu ohi diren ezbeharrekin.

Arlo horretan enpresaren jokabidea salatzeaz gain, CAFeko langileek elkartasuna adierazi diote hildako langilearen familiari. X

**Barakaldoko merkatariak «basatitzat» jo dute Ansioko proiektua**

Efe / barakaldo

BARAKALDOKO merkatarien elkarteak presidente Juantxo Agirrek «basatitzat» jo du Ansioko 160.000 metro koardoko eremuan merkatariak parke handi bat zabaltzeko duten asmoa. Parke hori gaur egun AHVko (Bizkaiko labe garaiak) laminazio lantegiak dauden lurretan jartzeko asmoa dute.

Agirre Barakaldoko udal agintaritzarekin elkarrizketatu zen atzo, proiektuaren berri jakin eta sektorearen zuzeneko kalteordainak eskatzeko. Haren ustez, parke horrekin «ohiko merkataritzaren arriskuan izango da, makrozentro horrek kalte handia egingo diolako».

Ansioko merkataritzaren parkearen proiektua Ikea, Mills Corporation eta Lease multinazionalen eskuetan dago. Bizkaiko Aldundiak eta Barakaldoko Udalak aurreikusi dutenez, konpainia horiek 30.000 milioi pezeta inguru inbertituko dituzte bertan, eta parkeko saltoki nahiz zerbitzuekin 4.500 lanpostu sortuko dira.

Barakaldoko merkatarientzat, proiektua zeharo leku kanpoko da, inguru horretan saltoki handi asko daudelako. Hala ere, ez dute espero atzera botatzerik. Hori dela eta, merkatari txikiak eskakizun bat egin diote Udalari: parkeak eragindako diru sarrerak Barakaldoko hiriguneko saltokiak bultzatzeko erabil ditzala. X